

Bidaia-arien sarrerak %2 gutxitu dira 2008ko urrian

Gaualdiak %1 jaitsi dira

Eustatek eskainitako datuen arabera, 2008ko urrian, 178.234 bidaia-ari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 3.000 sarrera gutxiago aurreko urteko hilabete beraren aldean. Horrenbestez, %2ko jaitsiera eman da. Bidaia-ari-sarrek %6ko beherakada izan dute Araban eta Bizkaian. Gipuzkoan, aldiz, %6 gehitu dira, aurreko urteko hilabete beraren aldean.

Estatutik datozen bidaia-arien sarrek ez dute inolako aldaketarik jasan (%0) 2007ko urriaren aldean. Estatutik datozen bidaia-arien kopurua jaitsi egin da Araban (-%7) eta Bizkaian (-%1); Gipuzkoan, ordea, igo egin da (%5). Atzerriko bidaia-arien kopuruak ere behera egin du bai Araban (-%4), bai Bizkaian (-%15), baina Gipuzkoan gehitu egin dira (%7). Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan %6ko jaitsiera globala eman da.

Estatutik datozen bidaia-arien artean, ugaritu egin dira Kantabriatik, Gaztela eta Leondik, Valentziako Erkidegotik, Galiziatik eta Nafarroatik datozenak, besteak beste. Aitzitik, gutxitu egin dira batez ere Asturias, Madril eta Kataluniatik datozenak. Atzerriko bidaia-arien artean, Alemaniatic, Austriatic, Grezian, Suedian eta Europa ekialdeko herrialdeetatik etorri direnen kopurua igo da. Portugal, Italia, Belgika, Irlanda eta Erresuma Batutik etorritako bidaia-arien kopurua, aldiz, gutxitu egin da, besteak beste.

336.511 gaualdi erregistratu dira 2008ko urrian. Beraz, %1eko jaitsiera izan da aurreko urteko urriaren aldean, hau da, 2.000 gaualdi gutxiago izan dira. Gaualdiek urte arteko eboluzio negatiboa izan dute Bizkaian (-%2), baina Araban eta Gipuzkoan %1 gehitu dira.

Bidaia-arien batez besteko egonaldia, iazko urriko 1,87 egunetik aurtengo urriko 1,89 egunera luzatu da Euskal Autonomia Erkidego osoa aintzat hartuta. Araban 1,70 egunetik 1,82 egunetara hazi da, Bizkaian 1,81etik 1,88ra. Aitzitik, Gipuzkoan 2007ko urriko batez besteko egonaldian igarotako 2,02 egunetatik aurtengo 1,92 egunera igaro da.

Plazen betetze-mailak %3 egin du behera, 2007ko urriko %47,08tik aurtengo urriko %45,53ra, hain zuzen. 2007ko urrian, plazen betetze-maila %42,33koa izan zen Araban, eta 2008ko urrikoa oso antzekoa izan zen, %42,48koa, alegia. Bizkaian, aldiz, 2007ko urriko %47,82tik aurtengo urriko %44,93ra igaro zen. Gipuzkoan zertxobait behera egin zuen, pasa den urteko %47,98tik 2008ko urriko %47,42ra igaroz. Gela betetze-mailak, ordea, ez du aldaketarik jasan Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta ezberdintasunak izan dira hiru lurraldeetan: Bizkaian ez da aldaketarik izan, Araban %3 egin du behera, eta Gipuzkoan, %1 baino zertxobait gehiago jaitsi da.

Nekazalturismoa: gutxitu egin dira bidaiarien sarrerak (-%4) eta gualdiak (-%5)

Euskal A Eko nekazalturismoko establezimenduetan, 9.062 bidaiari-sarrera erregistratu dira urrian. %4 gutxiago aurreko urteko hilabete beraren aldean: %3 igo dira Bizkaian, eta jaitsi Araban zein Gipuzkoan, %15 eta %4, hurrenez hurren. Estatutik datozen bisitarien kopurua %5 urritu egin da Euskal A En: Bizkaian ez da aldaketarik jazo (%0), eta gutxitu egin dira Araban (-%15) eta Gipuzkoan (-%5). Atzerritik datozenen kopurua %12 igo egin da Euskal A En: gehitu egin da Bizkaian (%41) eta Gipuzkoan (%1); Araban, aldiz, jaitsi egin da (-%3).

Euskal A Eko nekazalturismoko establezimenduetan 21.210 gualdi zenbatu dira urrian, %5 gutxiago aurreko urteko hilabete beraren aldean. Urte arteko hazkunde-tasa positiboa izan da Bizkaian (%3); Araban eta Gipuzkoan, aldiz, negatiboa izan da, (-%14) eta (-%7), hurrenez hurren.

Batez besteko egonaldia murriztu egin da Euskal A En 2007ko urriaren aldean, pasa den urteko 2,38 egunetatik aurtengo urriko 2,34 egunetara igaroz.

1.Taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	10 2008	%	10 2007	%	Δ %	10 2008	%	10 2007	%	Δ %	10 2008	%	10 2007	%	Δ %	10 2008	%	10 2007	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	336.511	100	338.528	100	-1	44.763	100	44.468	100	1	157.878	100	161.081	100	-2	133.870	100	132.979	100	1
Estatukoak	224.541	67	223.067	66	1	31.099	69	33.203	75	-6	103.429	66	101.078	63	2	90.013	67	88.786	67	1
Atzerrikoak	111.970	33	115.461	34	-3	13.664	31	11.265	25	21	54.449	34	60.003	37	-9	43.857	33	44.193	33	-1
Hiriburua	203.733	61	211.146	62	-4	31.997	71	30.995	70	3	101.795	64	105.543	66	-4	69.941	52	74.608	56	-6
Litoral	40.633	12	36.202	11	12	-	-	-	-	-	12.687	8	12.538	8	1	27.946	21	23.664	18	18
Barnealdea	92.145	27	91.180	27	1	12.766	29	13.473	30	-5	43.396	27	43.000	27	1	35.983	27	34.707	26	4
BIDAIARIEN SARRERAK	178.234	100	181.180	100	-2	24.549	100	26.152	100	-6	83.862	100	89.128	100	-6	69.823	100	65.900	100	6
Estatukoak	122.823	69	122.265	67	0	18.209	74	19.538	75	-7	57.775	69	58.265	65	-1	46.839	67	44.462	67	5
Atzerrikoak	55.411	31	58.915	33	-6	6.340	26	6.614	25	-4	26.087	31	30.863	35	-15	22.984	33	21.438	33	7
Hiriburua	107.016	60	112.255	62	-5	16.423	67	17.468	67	-6	53.242	63	57.663	65	-8	37.351	53	37.124	56	1
Litoral	19.428	11	16.330	9	19	-	-	-	-	-	6.004	7	6.299	7	-5	13.424	19	10.031	15	34
Barnealdea	51.790	29	52.595	29	-2	8.126	33	8.684	33	-6	24.616	29	25.166	28	-2	19.048	27	18.745	28	2
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,89		1,87		1	1,82		1,70		7	1,88		1,81		4	1,92		2,02		-5
BETETZE-MAILA PLAZAKA	45,53		47,08		-3	42,48		42,33		0	44,93		47,82		-6	47,42		47,98		-1
Hiriburua	50,36		53,91		-7	48,48		44,76		8	49,17		54,62		-10	53,17		57,74		-8
Litoral	44,74		40,24		11	-		-		-	34,13		35,98		-5	52,08		42,93		21
Barnealdea	37,81		38,41		-2	32,43		37,63		-14	40,48		39,54		2	37,05		37,39		-1
BETETZE-MAILA GELAKA	59,16		59,01		0	55,79		52,68		6	60,92		60,34		1	58,16		59,85		-3
Hiriburua	66,87		66,23		1	65,14		56,41		15	67,02		66,73		0	67,57		71,33		-5
Litoral	52,56		48,23		9	-		-		-	46,70		45,51		3	56,35		49,91		13
Barnealdea	48,43		50,35		-4	38,32		44,00		-13	53,55		52,69		2	46,30		49,85		-7
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	21.210	100	22.379	100	-5	3.897	100	4.513	100	-14	7.035	100	6.851	100	3	10.278	100	11.015	100	-7
Estatukoak	17.238	81	19.479	87	-12	3.303	85	4.212	93	-22	5.919	84	6.129	89	-3	8.016	78	9.138	83	-12
Atzerrikoak	3.972	19	2.900	13	37	594	15	301	7	97	1.116	16	722	11	55	2.262	22	1.877	17	21
BIDAIARIEN SARRERAK	9.062	100	9.419	100	-4	1.625	100	1.905	100	-15	3.161	100	3.066	100	3	4.276	100	4.448	100	-4
Estatukoak	8.172	90	8.625	92	-5	1.590	98	1.869	98	-15	2.849	90	2.844	93	0	3.733	87	3.912	88	-5
Atzerrikoak	890	10	794	8	12	35	2	36	2	-3	312	10	222	7	41	543	13	536	12	1
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,34		2,38		-2	2,40		2,37		1	2,23		2,23		0	2,40		2,48		-3
BETETZE-MAILA PLAZAKA	20,12		21,74		-7	19,43		23,14		-16	19,79		19,93		-1	20,63		22,46		-8
BETETZE-MAILA GELAKA	23,17		25,04		-7	23,13		26,51		-13	23,04		23,11		0	23,30		25,84		-10

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago: Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Fax +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp